

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2011ko martxoaren 9an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**3.- JOSE ANTONIO ERAUZKIN ENPARANTZAN ETA ARTIKA BIDEAN JOLAS GUNE BARRIAK EGITEKO OBRA KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.**

**Xedea**

Jose Antonio Erauzkin Enparantzan eta Artika Bidean jolas gune barriak egiteko obra kontratua behin-behinekoz esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Kontratu honen xedea Jose Antonio Erauzkin (Artike) Enparantzan eta Artika Bidean jolas-gune barriak egitea da.

Bigarrena: Prozedura negoziatua egin da, publikidade barik. Holan, bost gonbidapen egin dira. Halanda be, horietako bik, azkenik, ez dabe eskaintzarik aurkeztu.

Hirugarrena: Lizitazio-prezioa finkoa izan arren, baldintza-orrien arabera hobakuntza ekonomiko bat egiteko aukerea egoan, joko gehiago ipinteko eskaintzearen bitartez. Era berean, eskaintza alternatiboa egiteko aukerea be baegoan, eta, holan, HPC Iberica, S.A. enpresek eskaintza bi egin dauz. Honeek izan dira enpresen hobakuntza ekonomikoak:

- |                           |                              |
|---------------------------|------------------------------|
| • AUNOR, S.L.             | Ez dau aurkeztu eskaintzarik |
| • HAGS SWELEK, S.A.       | Ez dau aurkeztu eskaintzarik |
| • YOR, S.A.               | 26.341,49 €                  |
| • LAPPSET ESPAÑA VR, S.L. | 18.000,00 €                  |
| • HPC IBERICA, S.A.       | a) 15.000,00 €               |
|                           | b) 20.000,00 €               |

**Argudioak**

Bakarra: Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren eta kalifiketako sistema kontuan hartuta, LAPPSET ESPAÑA VR, S.L. enpresek lortu dau puntu gehien. Hauxe da puntu kopuruaren taulea:

Enpresea	Hobakuntza ekonomikoa (0-45)	Diseinua (0-40)	Hobakuntzak (0-5)	Epea (0-10)	Guztira (0-100)
YOR	45	25	4	5	79
LAPPSET	30,75	40	3	10	83,75
HPC- a)	25,62	35	5	10	75,62
HPC- b)	34,17	30	5	10	79,17

## Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrek:

**LEHENENGOA:** Jose Antonio Erauzkin (Artike) Enparantzan eta Artika Bidean jolas-gune barriak egiteko proiektua LAPPSET ESPAÑA VR, S.L. enpreseari esleitzea behin-behinekoz, 110.169,49 euroan (BEZa kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 19.830,51€-koa da. Guztira: 130.000,00€.

**BIGARRENA:** Behin-behineko esleipena Bermeoko Udaleko web orriko kontratugilearen profilean argitaratzea.

**HIRUGARRENA:** Enpresa esleipendunari jakinarazotea behin betiko esleipena egin ahal izateko jarraian adierazoten diren jarduketak egin beharko dauzala:

- Dokumentazio orokorraren artean, jatorrizkoa ez dan agiriren bat kautotu edo egiaztatu barik aurkeztu bada, kautotuta edo egiaztatuta aurkeztu.
- Behin betiko bermea ipini (5.508,47 €).

Horretarako, hamabost (15) laneguneko epea izango dau, erabagiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

**LAUGARRENA:** Enpreseak aurkeztutako hobakuntza guztiak kontratuan jaso beharko dira.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2011ko martxoaren 14an.

ONETSIA  
ALKATEA